

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ERRETERIAKO UDALA

*Erreterian hutsik dauden etxebizitzak mugitzea sustatzeko lanengatiko laguntzak arautzearen 2020 urterako dirulaguntzak ematea BDNS (Identif.): 510347.*

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalean kontsulta daiteke, goiburuan zehazten den erreferentzia zenbakiarekin (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/GE/es/index>).

Hirigintza saileko zinegotzi delegatuak, 2020ko ekainaren 10ean, 1161 dekretu zk. duen ebazpenean jasotzen diren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak eta deialdia onartzea erabaki du. Horien artean:

I ERANSKINA - 2020 DIRULAGUNTZA

*2020 urterako lanengatiko dirulaguntzak Erreterian hutsik dauden etxebizitzak mugitzea sustatzeko.*

Ondoko esku-hartzeak bete beharko dira dirulaguntza jaso ahal izateko:

Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute beren etxebizitza hutsa Bizigune edo ASAP programetan sartzen duten eta programa horietan sartu ahal izateko beharrezkoak diren obrak egiten dituzten jabeek.

Diruz lagunduko diren jarduerak dira obrak egitea edota ekipamenduak erostea edota eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria egitea.

Lerro horretarako baimendutako gastua 100.000 eurotakoa da.

Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik hasi eta 2020ko azaroaren 30 arte, edo aurretik aurrekontuetako partida agortuko balitz.

Pertsona edo kolektibo interesdunek Udalaren web orrian izango dute informazioa eskuragarri.

<https://erreteria.eus/zu/dirulaguntzak/#hirigintza>.

Erreteria, 2020ko ekainaren 11.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria. (2869)

AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

*Concesión de subvenciones 2020 para regular las ayudas por obras al objeto de promover la movilización de vivienda vacía en Erreteria BDNS (Identif.): 510347.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, con la referencia indicada en el encabezamiento (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/GE/es/index>).

El Concejal Delegado de Urbanismo, con fecha 10 de junio de 2020, n.º decreto 1161, ha resuelto aprobar las bases generales y la convocatoria para la concesión de las subvenciones que se contemplan en dicha resolución. Entre ellas, la siguiente:

ANEXO I - SUBVENCIÓN 2020

*Subvenciones 2020 para regular las ayudas por obras al objeto de promover la movilización de vivienda vacía en Erreteria.*

Las actuaciones protegibles objeto de subvención serán:

Podrán acceder a esta ayuda económica aquellos propietarios o propietarias de vivienda vacía que pretendan incluir su vivienda en el programa Bizigune o ASAP, y ejecuten las obras necesarias para poder incluirse en dichos programas.

Son actuaciones objeto de subvención la ejecución de obras y/o la compra de equipamientos y/o la realización del certificado de eficiencia energética.

El gasto autorizado para dicha línea de subvención es de 100.000 euros.

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 30 de noviembre de 2020, o previamente en el caso de agotamiento del importe de la previsión presupuestaria.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas o colectivos interesados en la página web del ayuntamiento.

<https://erreteria.eus/es/zu/subvenciones/#urbanismo>.

Erreteria, a 11 de junio de 2020.—La delegada de Organización, Alazne Korta Zulaika. (2869)